

**EAE-KO GAZTE PLANAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAREN AKTA, Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 20a.**

Partaideak:

- Gurutz Larrañaga jauna, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea eta bileraren burua, Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendari Xabier Sánchez Robles jauna duela laguntzaile eta idazkari lanetan ordezkaria.
- Mikel Burzako jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren ordezkaria.
- Josu Sagasti jauna, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren ordezkaria (Justizia Sailburuordetza).
- Mikel Legarda jauna, Herrizaingo Sailaren ordezkaria.
- Luis Fernando Consuegra jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaria (Gizarte Gaietako Sailburuordetza).
- Pedro Zugasti jauna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria.
- Marisa Arteagagoitia andrea, Osasun Sailaren ordezkaria.
- Nerea Teruelo andrea, EUDELen ordezkaria.
- Miren Lore Martinez andrea, EUDELen ordezkaria.
- Javier Delgado jauna, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkaria.
- Nesto Arana jauna (Eusko Jaurlaritzako Gazteriako burua), Fco. Javier Gutiérrez jauna eta Agurtzane Iriondo andrea (Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako teknikariak).
- Gotzon Baraia-Etxaburu jauna, Kalitate Lantaldea enpresatik.

Ez dira bilerara bertaratu:

- Miren Azkarate andrea, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua.
- Juan Jose Loroño Doistua jauna, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren ordezkaria (Lan Sailburuordetza).
- Francisco Javier Burón jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaria (Etxebizitza Sailburuordetza).
- Koro Garmendia andrea, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkaria.
- María Isabel Sola andrea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren ordezkaria.
- Javier Aspuru jauna eta Itziar Aizpurua andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak.
- Belén Greaves eta Maitane Leizaola andreak, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak.
- José Ignacio Insausti eta Haritz Solupe jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak.
- Jon Sustatxa Diaz jauna, Bilboko Udalaren ordezkaria.
- Arritxu Marañón andrea, Donostia-San Sebastián Udalaren ordezkaria.
- Maite Berrocal andrea, Vitoria-Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- M<sup>a</sup> Isabel Landa andrea, EUDELen ordezkaria.



Gurutz Larrañaga Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea izan da bileraren buru, Miren Azkarate Kultura sailburuaren ordezkari gisa. Bilera 10:15ean hasi da, sailburua bertaratu ezinagatik barkamena eskatu, bertaratutakoak agurtu eta bilerara lehen aldiz joandakoei ongi etorria eman ondoren.

## **1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.**

Zuzendaritza Batzordearen aurreko bileraren —2006ko azaroaren 30eko bileraren— aktaren zirriborroari dagokionez, Gurutz Larrañagak jakinarazi du, aurrekoetan bezala, ohiko postaz igorri dela aurrerapen nahikoz.

Proposatutako aktaren idazketa aurkeztu da onartua izan dadin. Sailburuordeak norbaitek aldaketaren bat sartu nahi duen galdetu du. Ez da eragozpenik izan eta, horrenbestez, aho batez onartu egin da akta eta gaien zerrendako bigarren gaia lantzeari ekin dio.

## **2. Gazteen Euskal Legea onartu bitartean erakunde bakoitzak onartu dituen Bitarteko Neurriei buruzko informazioa.**

II Gazte Planaren indarraldia amaitu eta gero, Eusko Jaurlaritzak gazte politika integralak bultzatzen jarraitzeko Bitarteko Neurriak onartu zituen 2006ko abenduaren 26an. Neurri horien artean, orain arte bezala, sailtako bakoitzaren ekintza positiboen urteroko programazio eta ebaluazio lanak barne hartuta daude.

Gurutz Larrañaga sailburuordeak etorkizuneko Gazteen Euskal Legea onartu aurre indarrean egongo den Bitarteko Neurrien Erabakian ageri diren edukietatik honako hauek azpimarratu ditu:

1.- Kultura Sailak, Gazteria Zuzendaritzaren bitartez, gazte gaien inguruko ekintza positiboen koordinazio eta jarraipen lanak burutuko ditu, gaiaren eskumena duten organoek ekintza positibo horiek antolatzeke eta kudeatzeko duten ahala errespetatuta.

2.- Gazteen Euskal Legea prestatu bitartean, eta behin betiko onartu arte, Kultura Sailak, ekitaldi bakoitzean, ekitaldi horretan burutuko diren ekintzen programazioa aurkeztuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari, honek onar dezan.

3.- Ekitaldi bakoitza amaitutakoan, Kultura Sailak ekitaldi horri dagokion jarraipen txostena aurkeztuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari, eta txosten horretan enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eskumena duten sailek burututako ekintza positiboen arteko koordinazio maila aztertuko da. Jaurlaritzaren Kontseiluari igorriko zaion txostenean enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari



buruzko politiken eta gazte politikaren arteko osagarritasun mailaren balorazioa erantsiko da.

4.- Gazteria Zuzendaritzak Erabaki honetan egiten diren aurreikuspenak betetzeko xedearekin, behar den informazioa bildu eta aztertzeko eginkizunari helduko dio. Horretarako, aipaturiko gaien eskumena duten sailek kasu bakoitzean behar den laguntza emango diote Gazteria Zuzendaritzari.

5.- Kultura Sailak, bere aldetik, gazte politika integrala bultzatu eta koordinatzeko mekanismo hauei eutsi beharko die:

- Atari gaztea eta Leihatila bakarra (Gazteukera).
- Gazte politikarekin erlazionatutako planekiko koordinazioa.
- Mahai sektorialak.
- Udal plan estrategikoak prestatu eta garatzeko finantziarioa eta gazte ekipamenduen sarea sendotzea”.

Erabakian ageri diren edukiak azaldu eta gero, sailburuordeak adierazi du ez dakiela Batzordean parte hartzen duten gainerako instituzioek neurririk hartu duten gai honi buruz, hau da, II Gazte Planaren indarraldia amaitu eta gero instituzioetakoren batek gazte politika integralak sustatzen jarraitzeko neurriren bat onartu duen. Bertaratutakoei hitza eman die horren inguruko informazioa eman dezaten, baina ez du inork parte hartu.

Horrenbestez, eta Bitarteko Neurri horietan harturiko konpromisoak betetzeko helburuarekin, sailburuordeak Eusko Jaurlaritzaren gazte politika integralaren 2006ko ebaluazioari eta 2007ko programazioari buruzko datuak aurkezteari ekin dio.

## **2.1. 2006ko ebaluazioa.**

Gurutz Larrañagak 2006ko ekitaldiaren ebaluazio datuak erakutsita hasi du bere aurkezpena. Datu horiek “2006ko Jarraipen Txostena” delakoan zehazturik daude, eta bertan Zuzendaritza Batzordea “Zeharkako Gazte Politikaren Koordinazio, Sustapen eta Garapen Mekanismo” bat dela adierazten da. Sailburuordeak jakinarazi du Zuzendaritza Batzordea birritan bildu zela 2006ko ekitaldian eta bilera horietan landutako gaiak aipatu ditu laburki, Zuzendaritza Batzordera lehen aldiz bertaratutakoei hobeto kokatzen laguntzeko.

Jarraian, sailburuordeak Eusko Jaurlaritzak gazte politika integralaren bost arloetako bakoitzean exekutaturiko gastua aurkeztu du. Guztira 139 ekintza positibo izan dira, eta gastua, orotara, 133.649.489 euro izan da.

Era berean, jakinarazi du guztira programatutako ekintza kopurua guztira (139) ebaluatutako ekintza kopuruarekin bat datorren arren, 5 milioi euroko aldea dagoela programatutako zenbatekoaren eta exekutututako gastuaren artean.



Izan ere, aurrekontu osoa 128 milioi eurokoa izan da eta azkenean erabilitakoa 133 milioi eurokoa.

Etxebizitzaren arloan datza programatutakoaren eta exekutututakoaren arteko alderik handiena. Izan ere, aurrekontuetan ageri zena baino 12 milioi euro gehiago erabili dira. Beraz, sailburuordeak arlo honetan egindako ahalegina azpimarratu du.

Era berean, aurreko urteetan bezala, exekutututako gastuaren hazkundera handiagoa izan da 2006an: 2005ean 126.595.558,70 euro inbertitu ziren gazte gaietan, eta 2006ko 133 milioiekin alderatuta, 7 milioi euro baino gehiagoko hazkundera egon da aurreko urtetik aurrean.

Gastuari eta ekintza kopuruari buruz komentario horiek egin ondoren, Gurutz Larrañaga sailburuordeak adierazi du entregatu den dokumentuan 2006ko ekitaldiko ekintza positiboen zerrenda jasota dagoela, sailez sail ordenaturik, bai eta ekintza positibo horien ebaluazio fitxak ere, eduki guztiekin.

Beste alde batetik, "Enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizaritari buruzko politiken eta zeharkako gazte politiken arteko osagarritasun eta koordinazio maila baloratzeko 2006ko txostena" delakoak duen garrantzia azpimarratu du, urteko ebaluazio txosten sakona eta geroko programazioetarako baliagarria den aldetik.

Abagune horretan Zuzendaritza Batzordeko Idazkari Xabier Sánchezek hitza hartu du eta adierazi du sailetan azken urteetan programatu eta ebaluatutakoari buruzko informazioa eska diezaioketela Idazkaritzari. Hartara, programen eta beren emaitzen bilakaera erakutsiko duen txosten historikoa prestatzeko beste datu dago. Horri esker ondo dabilzan programak eta gaizki dabilzanak zein diren jakin daiteke, eta horrela sail bakoitzean martxan jartzen diren gazte politikak zuzentzen eta bideratzen joan daiteke.

Lehendakaritzako ordezkari Mikel Burzakok Idazkariaren iritzia berretsi du eta gaineratu du datu horiek oso interesgarriak izan daitezkeela programatzeko garaian eta, hortaz, informazio hori berari igortzeko eskatu du.

Partaidetza horien ondoren azaldutako txostena —*"Gazte-politika integralaren garapenari buruzko 2006ko Jarraipen Txostena"*— onartu egin da. Onartu eta gero, gai-zerrendaren bigarren gaia lantzeari ekin zaio.

## 2.2. 2007ko programazioa.

Horrela, bada, Gurutz Larrañaga sailburuordea hurrengo txostena azaltzen hasi da: *"Eusko Jaurlaritzak gazte gaietako ekintza positiboetarako hartutako 2007ko konpromisoak"*, alegia.



Txosten horretan, lehenik eta behin, Bitarteko Neurrien Erabakia dago jasota eta, bigarrenik, 2007ko ekitaldirako ekintzen programazioaren laburpen-koadroa. Laburpen horretan 157 ekintza daude programaturik eta gastua, orotara, 158 milioi eurokoa da.

Datu horiek 2006ko ekitaldiko ebaluaketari buruz aurkezturikoekin konparatuta, 2006an burututakoak baino 16 ekintza gehiago programatu dira. Ekintzen hazkundera handia izan da, bereziki aisia eta kulturaren arloan.

Beste alde batetik, programatutako gastua ere nabarmen igo da. Izan ere, 2006an 133 milioi euroko gastua burutu da eta 2007ko ekitaldirako 158 milioi euro baino gehiago programatu dira, hau da, aurreko urtean baino 25 milioi euro baino gehiago.

Txostenean, datu horien ondoren, sailek hartutako konpromisoen zerrenda ageri da. Konpromiso bakoitzaren ondoan ekitaldian ekintza positibo bakoitza burutzeko programatu den aurrekontuaren zenbatekoa konproba daiteke. Aurrerago Eusko Jaurlaritzaren 2007ko ekintza positiboen programaren zerrenda osoa ikus daiteke sailez sail. Bertan ekintza bakoitzaren xehetasunak azaltzen dira.

Abagune honetan Gurutz Larrañagak hitza luzatu die bertaratutakoei, nahi izanez gero, bakoitzak bere instituzioaren 2006ko ebaluazioari edo 2007ko programazioari buruzko datuak aurkez ditzan. Ez da parte-hartzerik egon eta gai-zerrendaren hirugarren puntua lantzeraino igaro da.

### **3. Beste gai batzuei buruzko informazioa: II Gazte Planaren emaitzen ebaluazioa, Gazteen Euskal Legea lantzeko prozesua eta bestelako koordinazio mekanismoak.**

Gai-zerrendaren hirugarren puntuan hainbat gai interesgarri aurkeztu dira. Sailburuordeak horien guztien berri eman du zehazki:

#### **3.1. II. Gazte Planaren emaitzen ebaluazio prozesuak erakunde bakoitzean duen egoera.**

Gurutz Larrañagak gogorarazi du Zuzendaritza Batzordearen aurreko bileran ebaluazio hau modu deszentralizatuan gauzatzea adostu zela eta instituzio bakoitzak eginkizun hori *Gazte planak eta programak programatzeko eta ebaluatzeko eskuliburuan* deskribatzen den eredia erabilita burutu dezakeela. Eskuliburuan ebaluazio mota horren nondik norakoak eta erabili beharreko emaitzen adierazleak zehazten dira.

Eusko Jaurlaritzak SIIS-Eguía Careaga Fundazioaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroari egin dio EAEko II Gazte Planean engaiatutako Eusko



Jaurlaritzako sailen gazte politika integralaren ebaluazioaren emaitzen txostenaren enkargua. Sailburuordeak Zuzendaritza Batzorde honen aurrean aurkeztu du txostena.

Bertaratutakoei banatu zaizkien dokumentuen artean amaierako txosten horren zirriborroa —ia behin betikoa— dago. Sailburuordeak jakinarazi du behin betiko txostena Eusko Jaurlaritzako sailei helaraziko zaiela amaierako berrikusketa egin dezaten, hartara argitara eta jendaurrera plazara dadin. Horrela, datozen hilabeteetan Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak gaia bere eskumenei edo jardun-esparruari dagokion ikuspuntutik aztertuko du. Nolanahi ere, jarraian, Gurutz Larrañagak kanpoko enpresak ekintzen burutzapen mailari buruz egin duen balorazio orokorra eta Eusko Jaurlaritzari egiten dizkion gomendio orokorrak azaldu ditu, bertaratutakoak jakinaren gainean egon daitezzen.

Hori dela eta, eta II Gazte Planaren burutzapen mailaren balorazio orokorra egiteko xedearekin, bertan aurreikusita zeuden 148 ekintzak 3 kategoriatan banatu dira: buruturik, partzialki buruturik eta burutu gabe.

Gurutz Larrañagaren esanetan, sailkapen honetako emaitzek II Gazte Planaren burutzapen mailaren ikuspegi orokorra ematen dute. Hona sailkapen horretatik atera daitezkeen ondorioak:

1. II Gazte Planean jasota zeuden 148 ekintzetatik 106 burutu dira guztira, hau da, hasieran aurreikusita zeudenen %71.
2. Ez da 42 ekintzari buruzko informaziorik egon ebaluazio aldian. Horrenbestez, burutu gabetat jo dira.
3. Burututako ekintza guztietatik gehienak, hau da, %84, guztiz burutu dira; gainerakoak (17 ekintza guztira) partzialki burutu dira.

Era berean, agiriaren 200. orrialdean gomendio orokorrak aurki daitezke. Lehenik eta behin, informazioa biltzeko sistema hobetzera bideratutakoak daude; bigarrenik, esku-hartze arloei buruzkoak, zehatzagoak; komenigarria da horiek sailetan sakonkiago aztertzea eta geroko ekintzen programazioetan aintzat hartzea.

Txostenean jasota dauden gomendio orokor guztietatik, sailburuordeak honako hauek azpimarratu ditu, gazte politiken programazio eta ebaluazio lanekin jarraitzeko beharrezkoenak edo garrantzitsuenak diren aldetik:

- Lortu nahi diren helburuak zentzuz eta xehetasunez zehaztea eta formulazio zalantzarri eta orokorregiak saihestea.
- Jarraipena eta emaitzak neurtzeko adierazleen kalitatea hobetzea eta burututako ekintza mota bakoitzari dagozkion adierazle komunak multzo bat adostearen alde lan egitea. Horrek ekintzak hobeto koantifikatzen, neurtzen edo baloratzen lagunduko digu.



- Instituzio eta/edo sailen arteko koordinazioa bultzatu eta hobetzea, eskatutako datu osoak izatearen garrantzia azpimarratze aldera.
- Gazteen egoerari buruzko adierazle orokorren multzoa hobetzea eta adierazle horiek teknikarien artean zabaltzeko beharrezkoak diren bideak ezartzea. Alde horretatik, gogoratu beharra dago Behatokiaren webgunean datu estatistikoak jasotzen direla, adinaren arabera banatuta daudela eta oso baliagarriak direla gazte politikak garatzeko orduan. Txostenean esaten den bezala, komenigarria da horiek guztiak etengabe ugaritzen eta eguneratzen jarraitzea, bai eta teknikarien artean hedatzea ere.
- Eskumenak dituzten sail eta/edo zuzendaritzei II. Gazte Planaren datu-basean dauden programa edo jarduketei buruz dagoen informazioa areagotu dezaten eskatzea, 2002-2005 aldiko ebaluazioa egiteko datu nahikorik ez dagoen kasuetan. Interes handikoa izango litzateke, bereziki, luzez eta argiro martxan dauden programa edo neurri guztiei buruzko informazioa osatzea, inongo daturik ez duten edo urte bakarrerako datuak dituzten jarduketei arreta berezia eskainiz.

Horiek dira azterlanaren gai orokor azpimarragarrienak, Eusko Jaurlaritzaren ekintzen emaitzei dagokienez.

Sailburuordeak beste instituzioren batek lan horri ekin dion edo instituzio bakoitza emaitzen ebaluazio prozesuaren zein fasetan dagoen galdetu du. Izan ere, artean Idazkaritzak ez du jaso inongo informazio edo jakinarazpenik jaso. Horren haritik, informazioa eduki bezain laster Idazkaritzari jakinaraztea eskatu die beste instituzioetako ordezkariak, edo, nahiago izatekotan, datozen egunotan Idazkaritzari jakinarazpen zehatzagoa edo eguneratua egitea. Informazio hori ematera animatu ditu, beste instituzioak lan honi dagokionez zertan diren jakitea interesgarria baita guztientzat.

Horren ildotik, Gurutz Larrañagak II Gazte Planaren emaitzen ebaluazio azterlanaren garrantzia azpimarratu du, instituzioak II Gazte Planaren indarraldiko 4 urteetan egin duen bidearen nondik norakoak deskribatzen dituelako eta gomendio interesgarriak ematen dituelako etorkizunera begira.

Azaldutakoaren haritik ez da parte-hartzerik egon, beraz, gai-zerrendaren hurrengo gaia lantzen hasi da sailburuordea.

### **3.2. Gazteen Euskal Legea lantzeko prozesua.**

Banatu den Gazteen Euskal Legearen aurreproiektuaren zirriborroa komentatzera pasatu aurretik, sailburuordeak jakinarazi du beharrezkoa dela zirriborroa lantzeko egutegiak izan dituen aldaketa batzuk azaltzea.

2006ko urtarrilaren 12ko Zuzendaritza Batzordean aurreproiektuaren zirriborroa lantzeko metodologia adostu zela gogorarazi du Gurutz Larrañagak.



Metodologia horri jarraiki, 2007ko lehen sei hilekoan hasieran prestatutako zirriborroaren kontsulta eta entzunaldi faseak burutzea aurreikusita zegoen. Eta horrela egin zen, hasteko Eusko Jaurlaritzako sailen partaidetzarekin. Sailek maiatza-ekainetan egin zituzten beren ekarpenak.

Zehazki, honako sail hauen ekarpenak jaso dira:

- Lehendakariordetza:
  - Lehendakariordetzako Idazkaritza Nagusia: Koordinazio Zuzendaritza
  - Administrazioa Eraberritzeko eta Administrazio Elektronikorako Idazkaritza Nagusia: Eusko Jaurlaritzako Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritza
- Osasun Saila.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila:
  - Gizarteratze eta Familia Sailburuordetza
  - Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
- Herrizaingo Saila: Araubide Juridikoaren Zuzendaritza.
- Emakunde.

Beste alde batetik, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekiko kontsulta bilerak amaitu ahal izan ziren uztailean. Presidente berria du Kontseiluak (Javier Delgado) eta sailburuordeak Zuzendaritza Batzordean aurkezpena egin dio, bai eta ongi etorria eman ere.

Javier Delgado Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidente berriak hitza hartu du eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzarekin hainbatetan bildu dela berretsi ondoren, kontseilukideen ekarpenak bildu direla adierazi du. Era berean, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua Legearen aurreproiekturako amaierako ekarpena zehazten ari dela eta laster bidaltzeko moduan egongo dela adierazi du.

Sailburuordeak azalpenarekin jarraitu du eta, Jaurlaritzako sailekin eta Kontseiluarekin bezala, hiru foru aldundiekin eta EUDELekin kontsultaren fasea hasi zela adierazi du. Egindako bileretan udal eta foru hauteskundeen ondoren kontsultarako bigarren txanda bat egitea eskatu zen, hauteskundeen ondoren izendatutako gazteria arduradun berriek ere zirriborroa prestatzen lagun zezaten eta testua guztiz landuta eta itxita aurki ez zezaten. Kultura Sailak foru aldundiekin eta EUDELekin kontsultarako bigarren txanda egiteko eskaria onartu zuen, hasieran aurreikusitako egutegia nabarmen atzeratzen zuen arren eta zirriborroaren prestakuntza dezente atzeratuta zegoen arren. Sailburuordearen hitzetan, erabaki guztiz egokia izan zen hura, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Donostiako Udalean izan ezik (bertako Gazteria zuzendaria eta zinegotzia berberak baitira), aldaketak egon baitira instituzio guztietan. Batzuetan pertsonak aldatu dira, besteetan, alderdi politikoak ere bai. Horrela, bada, Arabako Foru Aldundian Aralar da orain gazte gaien arduraduna; Alderdi Sozialista Gasteizko Udalean eta Ezker Batua Bilboko Udalean. Bizkaiko Foru





Aldundia alderdi politikoa aldatu ez duen bakarra izan da: EAJk jarraitzen du, baina Gazteria Zuzendaria aldatu egin da.

Horrela, bada, azaroan amaitu zen kontsulta eta entzunaldirako fasea hiru foru aldundiei eta EUDELi dagokienez. Horren emaitzaz lortutako testua da Zuzendaritza Batzorde honetan banatu dena.

Zirriborroaren edukiari dagokionez, lehendabizi gogorarazi behar da edukien hasierako proposamenak biltzeko egin ziren lantaldeen ondorioetan oinarrituta egituratu dela testua. Horrela, bada, gazte politika integralaren eredia zehazten duten hiru bloke handi daude: emantzipazioa edo zeharkako politika; gaztetasunaren sustapena edo berariaz gazteei zuzendutako zerbitzu eta ekipamenduen politika; eta gazteen parte-hartzea.

Lehen atalean (Emantzipazioa edo Zeharkako politika) bi gazte planen indarraldian Zuzendaritza Batzorde honek sustatu eta *Gazte planak eta programak programatzeko eta ebaluatzeko eskuliburuan* jaso dituen metodologia eta tresnak biltzen dira, egokiak diren moldaketak txertatuta.

Horrela, bada, epe luzeko plan orokor bakarra egongo da (8 edo 10 urtekoa), instituzio bakoitzak lau urteko edo legegintzaldi bateko plan estrategiko baten bidez zehaztuko duena. Horrela aurreko gazte planetan egon den zailtasun nagusienetako bat gaindituko da, alegia, Eusko Jaurlaritzaren erritmoa eta gainerako instituzioena egokitu ezina, hauteskundeak ez baitira aldi berean izaten.

Era berean, urteroko programazio eta ebaluazio prozesuari eutsi zaio. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Jaurlaritzaren Kontseiluari dagokio programazio eta ebaluazioak onartzea. Zuzendaritza Batzordearen osaerari eta bere eginkizunei dagokienez, egokitzapen batzuk egon dira. Batetik, Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien eta EUDELen artean Erakunde arteko Batzorde parekide bat eratuko da. Bertan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ere parte hartuko du. Bestetik, instituzio bakoitzak bere Sail arteko Batzordea eratuko du, bai maila politikoan bai maila teknikoan.

Bigarren atalari dagokionez (Gaztetasunaren sustapena edo Berariaz gazteei zuzendutako zerbitzu eta ekipamenduen politika), Gaztetasunaren Sustapenerako Euskal Sistema gaineratu da foru aldundiek hala eskatuta, aldundiei baitagokie horrelako politikak burutzeko eskumena. Bertan honako sail hauek egongo dira:

1. Gazte informazio, dokumentazio eta aholkularitza;
2. gazte aterpetxeak;
3. gazte prestakuntza;
4. topaketarako, aisiarako eta gazte ekimenen sustapenerako instalazioak;
5. gazte jarduera eta programak; eta



## 6. gazteentzako bestelako prestazioak.

Gainera, Gazteen Sustapenerako Euskal Sistemaren Prestazioen Katalogoa sortuko da.

Hirugarren tokian, gazteen partaidetzarako bideak eta sustapena landu dira. Atal honetan aldaketa esanguratsuak egon dira elkarten sare osoaren partaidetza sustatze aldera, bereziki tokiko elkarteena eta elkarteetatik kanpoko gazteena, teknologia berrien bitartez, bereziki. Horetarako lurralde eta toki mailako gazte erakundeak ere ordezkaturiko dituen Euskadiko Gazteriaren Kontseilu bat osatuko da. Hori dela eta, zirriborroan bi aukera eman dira —foru aldundiek eta EUDELEk hala eskatuta—: instituzio bakoitzak gazteen partaidetzarako egitura egonkorra sortzea edo, halakorik ezean, erakundeak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan zuzenean ordezkaturik geratzea.

Azkenik, egin beharreko urratsei dagokienez, eztabaida publikoa egin behar da erakunde sozialekin, gazteekin eta, oro har, herritar guztiekin. Barne tramitazioa ere egin behar da, nagusiki dagoeneko eskatuta dauden derrigorrezko txostenak jasotzea, aurreproiektua Jaurlaritzaren Kontseilura igortze aldera.

Ildo horretatik, sailburuordeak adierazi du Kultura Sailak 2008ko martxo-apiriletan igorri nahi diola testua Jaurlaritzaren Kontseiluari. Hala ere, onartu beharra dago badagoela Kultura Sailaren eskumenetik kanpoko epea duen hainbat izapide ere.

Sailburuordeak hitz egiteko gonbita luzatu die bertaratutakoei, Legearen aurreproiektuaren testuari buruz komentario edo ekarpenen bat egin dezaten. Ez dago, ordea, parte-hartzerik.

### **3.3. Azkeneko Zuzendaritza Batzordetik hona, gazte politika integralak koordinatu, sustatu eta garatzeko gauzatu diren bestelako mekanismoak.**

Gurutz Larrañagak adierazi du instituzio jakin batzuek barkamena eskatu dutela agertu ezinagatik eta, aldi berean, Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritzari instituzio horien jardunaren berri ematea eskatu diote. Horren haritik, sailburuordeak Idazkaritzara igorritako dokumentuak aurkeztu ditu eta horiek bertaratutakoen artean banatzeari ekin dio.

Horrela, bada, Gasteizko Udalak 2006-2008 epealdirako Udal Gazte Planaren aleak bidali ditu, bai eta 2006 eta 2007 ekitaldietan Udal Gazte Planaren baitan buruturiko lanaren ebaluazioaren laburpen/aurkezpen gisako PowerPoint-a ere.

Bilboko Udalak, bere aldetik, bertaratu ezinagatik barkamena eskatu du eta II Bilbao Activa Udal Gazte Planaren aleak igorri ditu —paper gainean eta CD-an—, bai eta 2006-2007 epealdian Bilboko Udalak sustatu dituen gazte politika integralen laburpen txostenaren kopia ere.



Gorago aipatutako materialak erakutsi, azaldu eta banatu ondoren, Gurutz Larrañaga sailburuordeak beste instituzioren batek Gazte Planak edo Gazte Politika Integralen koordinazio, sustapen eta garapen mekanismoren baten berri eman nahi duen galdetu du eta hitza luzatu die bertaratutakoei. Ez du inork ezer adierazi gai horri buruz.

#### **4. Galde-eskeak.**

Galde-eskeen txandari hasiera eman zaio baina ez du inork parte hartu.

Beraz, Gurutz Larrañagak gogorarazi du instituzioek jakinaraziko dituzten zuzenketak egin eta gero, 15 eguneko epean, txostena itxiztat eta osatuztat joko dela, jendaurrean aurkez dadin. Beste alde batetik, Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritzak datuak biltzen jarraituko du urteko jarraipen agiriak osatzeko. Horretarako, Zuzendaritza Batzorde honen Idazkaritzak 2008ko programazioari eta 2007ko ebaluazioari buruzko datuak eskatuko ditu urtarrilean. Baina datu horiek Zuzendaritza Batzordearen 2008ko bileran landuko dira.

Azkenik, 11:45ean sailburuordeak amaitutzat jo du saioa eta eskerrak eman dizkie bertaratutakoei egon izanagatik eta, bereziki, datuen aurkezpenean parte hartu dutenei. Jarraian, hurrengo bilerara arte agurtu ditu bertaratutakoak eta urte berri ona opa du guztientzat.